



HILABETEKO LABURPENA

Urriak zalantzak piztu ditu laugarren hiruhilekoaz

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) udazkeneko aurreikuspenak argitaratu ditu, eta bertan islatzen duen egoera ez da ekainekoa bezain negatiboa. Oro har, **gorantz berrikusten du urte honetarako espero den munduko hazkundera, -%5,2tik -%4,4ra**. Aitzitik, 2021erako aurreikuspena bi hamarren jaitsi du. Aldaketa horien onura gehien jaso duten herrialdeak AEBak (3,7 puntuko goranzko berrikuspena izan du) eta Mexiko (3,3 puntuko hobekuntza) dira. Aitzitik, Indiarako aurreikuspenak 5,8 puntu murriztu ditu. Euroaren eremurako zuzenketa ere garrantzitsua da (1,9 puntu gehiago haziko da).

Hilabete honetan ezagutu da herrialde garatuetako hirugarren hiruhilekoko BPGaren hazkunderaren lehen zenbatespena. Informazio hori garrantzitsua da ekonomiaren suspertze prozesuari pultsua hartzeko. Oro har, hiruhilekoen arteko aldakuntza tasak bereziki altuak izan dira, baina **urte arteko tasak oso negatiboak dira oraindik, nahiz eta bigarren hiruhilekokoak bezain negatiboak ez izan**. Adibide batzuk jartzearen, AEBetako hazkunde tasa -%9,0tik -% 2,9ra igaro da, Alemaniak zazpi puntu egin du gora, -%11,2tik -%4,2ra, eta Frantziak, berriz, -%18,9tik -%4,3ra. Tasen antzekotasuna hautsi egiten da Espainiaren kasuan, zifra negatibago batetik abiatzen baitzen (-%21,5) eta -%8,7an geratzen baita.

Kutsatzen kopuruak Europako herrialdeetan gora egin izanak eta beren gobernuak hartzen ari diren neurri murriztaileek enpresen igurikimenak geldiarazi dituzte, urriko PMI indizeek jasotako erantzunen arabera. Zehazkiago adierazita, indize konposatuaren maila irailean 50,4koa izatetik urrian 49,4koa izatera igaro da, eta, horren ondorioz, laugarren hiruhilekoan berriro atzeraldian sartuko delako ideiak indarra hartu du. Aurreko hilabeteetan iragarri zen bezala, alde handiak daude sektoreen eta herrialdeen artean. Horrela, manufakturen indizea 57,8ra igo da, hedapen handia adierazten duena. Zerbitzuena, berriz, 46,2ra jaitsi da eta hazkunde eremutik urrundu da. Herrialdeka, Alemaniak posizio sendoa du (54,5) eta Frantzia ahuldu egin da (47,3).

EAEko ekonomiari dagokionez, **hirugarren hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapena ezagutu da, eta aurreikusitakoa baino hobea izan da**. Zehatzago esanda, BPGaren urte arteko tasa -% 7,7 izan zen, eta azken koadro makroekonomikoan -%11,9 aurreikusi zen. Enpleguak ere uste baino portaera hobea izan du, eta lanaldi osoko lanpostu baliokideek %6,5 egin zuten behera, aurreikuspenen arabera %9,2 jaitsiko ziren bitartean.

Aurrekoari lotuta, BJA inkestak lan merkatuaren datu negatiboak argitaratu ditu, baina bizi garen egoera kontuan hartuta espero zitekeen mailara iritsi gabe. Adibidez, landunen beherakada, urte arteko tasan neurtuta, %4,4 izan zen, 40.000 pertsona landun baino gutxiago galdu baitziren, aipatutako kontu ekonomikoen %6,5aren aldean. Beste aldetik, lan merkatutik jende asko irten da, 34.000 pertsona aktibo gutxiago baitaude orain. Beraz, langabeziak 4.700 lagunetan bakarrik egin du gora azken urtean. **Horren guztiaren ondorioz, langabezia tasa %10,0 izan da**, 2019ko hirugarren hiruhilekoko %9,4aren gainetik dagoe-na, baina 2020ko bigarren hiruhilekoko %10,8aren azpitik kokatu dena. INEren BAI inkestak antzeko langabezia tasa eman du (%10,3).